

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA

#### 2018ko kontu orokorra jendaurrean jartzea

Kanpezuko-Arabako Mendialdea Kuadrillako batzarrak, 2019ko maiatzaren 20ko bilkuran, 2018ko kontu orokorrari hasierako onarpena eman zion.

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63.3. artikuluan xedatutakoa betez, kontu orokorra 15 egunez jarriko da jendaurrean. 15 egun horietan interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak, oharrak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dizkiote batzarrari. Epea iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen. Adierazitako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, kontu orokorra behin betiko onartuko litzateke.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da iragarki hau.

Santi Kurutze Kanpezu, 2019ko ekainaren 6a

*Lehendakaria*

*MIKEL HERRADOR IRIARTE*